

ERANSKINAK

1. eranskina: Autojarraibideen entrenamendua eta zereginetarako autojarraibideak

Entrenamendua

1. urratsa: Irakasleak zeregina umearen aurrean egingo du eta aldi berean bere buruari hitz egingo dio egin beharreko urratsak, zalantzak eta aukerak esanez eta bere burua zorionduz (beheko irudiak jarraituz).



2. urratsa: Orain ikasleak zeregina burutuko du eta irakasleak jarraibideak ozen esango ditu ikasleak egiten dituen urratsak aipatuz.




3. urratsa: Ikasleak egiten dituen urratsak ozen esaten dituen bitartean, zeregina burutuko du.
Irakaslearen laguntza beharrezkoa izango da, dena gogoratzea umearentzat zaila izango delako. Hala ere, irakasleak esaldia esan ondoren, umeak errepikatuko du.



4. urratsa: Azkenik, entrenamendu saio nahikoak burutuko direnean, egiten ari dena ozen esan beharrean, isilean esango du eta bere pentsamenduak gidatzeko gai izango da.

(Balbuena et al., 2014).

Zereginetarako autojarraibideak



Lehenengo eta behin

begiratzen dut eta ikusten
dudan guztia aipatzen dut.



Zer egin behar dut?



Nola egingo dut?



Oso adi egon behar dut
eta erantzun posible
guztiak kontuan hartu.



Orain egin dezaket.



Primeran!

Ondo atera zait.



Ez zait ondo atera.

Zergatik? (urrats
guztiak birpasatzen
ditut). Ah! Horregatik
zen! Ados, hurrengoan
ez dut akats hau berriz
egingo.

(Orjales-etik moldatuta, 1998)

2. eranskina: Erregistroen erabilera etxean

<i>Gaur egin behar dut...</i>				
<i>Izena.....</i>				
<i>Data</i>	<i>Denbora</i>	<i>Ikasgaia</i>	<i>Denbora tarte horretan amaituta? (Nik gurutze bat jarriko dut)</i>	<i>Irakaslearen txanda</i> <ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Begiratuko du.</i> ✓ <i>Nirekin hitz egingo du.</i> ✓ <i>Oharrak jarri ahal ditu.</i>
			<input type="checkbox"/>	
			<input type="checkbox"/>	
			<input type="checkbox"/>	
			<input type="checkbox"/>	
			<input type="checkbox"/>	
			<input type="checkbox"/>	
			<input type="checkbox"/>	

3. eranskina: Jarrerarekin erlazionatuta dagoen kontratu baten adibidea

<h1>KONTRATUA</h1>	
_____ (e)k,	
(ikaslearen izena)	

_____ adierazten du.	
_____ (e)k, biok adostutako akordioa	
(ikaslearen izena)	
betetzekotan, _____ sari	
moduan jasoko duela andereño/maisú _____ (e)k	
adierazten du. (irakaslearen izena)	
Data _____	
Ikaslearen sinadura	Irakaslearen sinadura

4. eranskina: Buruketa matematikoak lantzeko autojarraibideak



1. GELDITZEN NAIZ.
2. BEGIRATZEN DUT.
3. ERABAKI BAT HARTZEN DUT.
4. JARRAITZEN DUT.
5. BIRPASATZEN DUT.

1. **GELDITZEN NAIZ:** “Arkatza mahai gainean utziko dut, oraindik ez dut behar”.

2. **BEGIRATZEN DUT:** “Orria begiratuko dut eta agertzen dena irakurriko dut”.

3. **ERABAKI BAT HARTZEN DUT:** “Datuak azpimarratuko ditut eta egin behar dudana esango didan hitz gakoa bilatuko dut”.

4. **JARRAITZEN DUT:** “Orain erabaki dudana egingo dut: batuketa bat”.

5. **BIRPASATZEN DUT:** “Eragiketa astiroago berriz egingo dut, emaitza frogatuz eta honek zentzua daukan neure buruari galdetuko diot”.

(Mena et al.-etik moldatuta, 2006).

5. eranskina: Azterketen egokitzapenaren adibidea

Egokituta **EZ** dagoen matematika azterketa baten ariketa.

1) 1etik 40 arte zenbakiak idatzi. 2ko taularen emaitzak inguratu,
4ko taularen emaitzetan gurutze bat egin eta 8ko taularen emaitzak
azpimarratu.

.....
.....

Zein zenbaki geratzen dira biribilduta eta gurutze batekin?
.....

Zein zenbaki geratzen dira gurutze batekin eta azpimarratuta?
.....

Egokituta dagoen matematika azterketa baten ariketa.

1) 1etik 40 arte zenbakiak idatzi.
.....
.....

2) **GORRIZ (O) BIRIBILDU** 2ko taularen emaitzak.

3) **BERDEZ (X) GURUTXE BAT EGIN** 4ko taularen emaitzetan.

4) **URDINEZ () AZPIMARRATU** 8ko taularen emaitzak.

5) Idatz itzazu **BIRIBILDU** dituzun eta **GURUTZEAK DITUZTEN** zenbakiak.
.....

6) Idatz itzazu **GURUTZEAK DITUZTEN** eta **AZPIMARRATU** dituzun zenbakiak.
.....

6. eranskina: IKTekin erlazionatuta dauden baliabide baliagarriak

Softwareak

- www.pipoclub.com
 - Vamos a leer con Pipo (1. eta 2. kurtsoa)
 - Matemáticas con Pipo (1. kurtsoa).

- Al colegio con Adibú: Yo leo, yo calculo (1. eta 2. kurtsoa).

- http://www.edicinco.com/editienda/tienda/catalog/product_info.php?products_id=30
 - Matemania (8-11 urte).

- El tesoro del remolino matemático (5-9 urte).

- <http://www.rehasoft.com/tdah/memotiva/>
 - Memotiva Junior (5-11 urte).

Interneten eskuragarri dauden baliabideak

- <http://www.educalim.com/edilim.htm>
 - EdiLim (Ikasleen beharretara egokitzuz, liburu interaktiboak eratzeko baliabidea).

- <http://jansencilag.entornodigital.com/>
 - Online jolasten den jokoa.

- <http://www.aula21.net/Wqfacil/webquest.htm>
 - WebQuest-ak sortzeko web orrialdea.

- http://servicios.educarm.es/templates/portal/ficheros/websDinamicas/23/alimentacion_saludable.swf
 - WebQuest baten adibidea.